

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 58/2025 Mozioa, ekainaren 20koa, Armiñonen autobus-geltoki bat jartzeari buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Batzordeak, 2025eko ekainaren 20an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

58/2025 Mozioa, ekainaren 20koa, Armiñonen autobus-geltoki bat jartzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari eskatzen diote, hiru hilabeteko epean, Vitoria-Gasteiz eta Miranda de Ebro lotzen dituen Alavabuseko 19. linea diseinatu eta Armiñongo udalerrria maiztasunetan barne har dezala, udalerrri horretako biztanleek herri barruan zuzeneko geroalekua izan dezaten.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, aukera posible guztiak aztertzeaz gain, proposamen bideragarri eta eraginkor bat egin dezala Alavabusen zerbitzu erregularra berregituratzeko, inguruko toki-erakundeentzat Alavabusen zerbitzu erregular hori izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 20a

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**